

TRANSFORMER

Bilbao-Andoain 1996-02-02

Bigarren lan honen oinarria, trabestismoa kristautasunaren tabu bezala, historia iruzur bezala eta mintzairaren erabilera (idatzia eta ahozkoa), ez da argazkilaritza bezala, baina bai parekagarria. Mintzaira bakoitzak bere egitura eta zatien harreman ezberdinekin, baina biak sistemak, bakoitza bere arauekin. Mintzaira bakoitza bere legeez mugatua dago eta beti zeozer mugagabea bihurtzen da, honek beste modu batean pentsatzera ahalbidetzen gaitu eta giza errealitatea definitzeko intentzioarekin sortzen da. Gauzetaz jabe egiteko era bat da eta gure pentsaerara moldatzera eramaten gaituena. Zergatik gauzak eta gertakariak katalogatzeko grina hori?

Aukeratu nuen agirieta batean eta kristo ondorengo 375 urtean gobernadoreak ateratako bandoa azaltzen da eta bertan herriari gonbitea luzatzen zaio Artxibo Historiko Nazioanalerako zuzenduta izango den zigiluen kolekzio bat egiteko. Bandoaren bukaeran zigilua ahalik eta “ obekien eta fidelen...eta bakoitza albiste historiko labur batekin lagunduta...” egitea eskatzen da.

Historizismo eta atzera begiratzeko gogo hortatik abiatuta, batera jartzen ditut egutegi kristauan oinarritutako prozesu historikoa eta persona batek duen kanpoko itsura, denbora-prozesua bat den bere bizitzan.

Pertsonaren bizi une prozesua, kasu honetan ilea haztean oinarritzen da eta alderantziz azaltzen dena, bere pertsonalitate eta bizi une ezberdinak mementu ezberdinetan markatuta edo definituta azaltzen dira.

Denbora-prozesuak, ilea motz edukitzetik luzea edukitzera, norberaren jaiotza eta heriotza errepresentatu nahi zuena, alderantziz jartzen dut eta kristautasunaren historiari kontrajartzen det. “gure egutegiari”.

Pertsonaren jaiotza “gure historiaren” azken urteen parera kontrajartzen da eta honen hasiera norberaren heriotzara.

Azpialdeko geziak denbora-norabide ebolutiboa seinalatzen du, nahiz eta argazkiarekin, idazketarekin edota beste edozein balibaideekin betikotu nahi izan, zeoze berrian disolbatzen da eta denbora eta espazioan aurrera egiten du.

Beñat Arregi